

ZERGATIK DAUDE ARRATZALEAK MUNDUAN? (I)

Duela urte asko, itsasoko ura errekakoa bezain geza zen. Txoriak eta emakumeak hara joaten ziren freskatzera eta igeri egitera.

Garai hartan, bazen lamia bat artzain batekin maiteminduta zegoena. Egunero ikusi ohi zuen artzaina ardiekin zihoala. Halako batean agurtu, eta berbetan hasi ziren biak. Egun batean, kanta bat kantatu zion; beste behin, lamiak itsasoko maskor bat opari egin zion itsas ondoko etxola batean bizi baitzen. Horrela egoten ziren egun batean zein bestean, artzaina maitemindu arte.

- 1) Nolakoa zen itsasoko ura duela urte asko?
 - a) Gazia zen.
 - b) Ibaietako ura bezain geza.
 - c) Errekakoa bezain gazia zen.
- 2) Zertarako joan ziren txoriak eta emakumeak itsasora?
 - a) Igeri egitera eta edatera.
 - b) Freskatzera eta jolastera.
 - c) Igeri egitera eta freskatzera.
- 3) Nor zegoen maiteminduta hasieran?
 - a) Lamia.
 - b) Lamia eta artzaina.
 - c) Artzaina.
- 4) Noiz ikusten zuen artzaina lamiak?
 - a) Garai hartan.
 - b) Egunero.
 - c) Halako batean.
- 5) Zer egin zuen lamiak artzaina maitemintzeko?
 - a) Itsas ondoko etxola erakutsi zion.
 - b) Abesti bat kantatu zion eta maskor bat oparitu zion.
 - c) Lamiak bakarrik hitz egiten zuen.
- 6) Non bizi zen lamia?
 - a) Itsas ondoko etxola batean bizi zen.
 - b) Ardiekin bizi zen.
 - c) Erreka baten ondoan bizi zen.